AMASA 53 PARTE-HARTZAILE LOATZOKO IGOERA-JAITSIERAN // 7

tolosaldeko ataria

ASTEARTEA
2019/04/30
7. urtea, 1.047. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

EH Bildu koalizioa gailendu da Tolosaldeko herrietan

EAJ da bigarren indarra eta bi alderdien artean 750 botoren aldea besterik ez dago; alderdi jeltzaleak Tolosan, Hernialden eta Abaltzisketan irabazi du // 4–5

Tolosa CF–ko jokalariek bigarren mailarako igoera ospatu zuten igandean. IRATI URDALLETA

«Igoera hau oso berezia da Tolosa CF-n aritzen diren neskentzat»

Tolosa CF Euskal Ligako futbol taldeak bigarren mailara igotzea lortu zuen igandean, Berazubin; igoera historikotzat jo dute eta lorpena «denon lanaren fruitua» dela esan dute // 6

Kontziliazio ekitaldiaren zain daude Tolosaldea Bus-eko langileak

Enpresarekin bilduko dira ostegunean eta adostasunik lortu ezean, greba mugagabea hasiko dute; ELAko langile ordezkaria kaleratu dutela salatu nahi dute // 3

Kalera aterako dira beste behin, pentsio duinak eskatzeko

Eskualdeko pentsiodunek manifestazioa egingo dute larunbatean, Tolosan; hainbat norbanakok eta eragilek bat egiten dute pentsio duinak lortzeko egiten dituzten eskaerekin // 2

Larunbateko manifestazioa iragarri zuten atzo, Plaza Zaharrean. JOSU ARTUTXA

Albizturko alkateak kargua uztea erabaki du

Maixabel Matxinandiarena alkateak eta Karlos Ugartemendia udal batzordeko kideak eman zuten dimisioa pasa den ostegunean // 5

107.6 fm · www.ataria.eus
ASTEARTEA, 2019ko apirilaren 30a

Eskualdeko pentsiodunak, atzo, Tolosako Plaza Zaharreko elkarretaratzean. J. A.

Eskualdeko erretirodunen pentsio duinen aldeko aldarria

Pentsiodunen manifestazioa izango da larunbatean, 12:00etan, Tolosako Plaza Zaharretik abiatuta. Bitartean, herritarren babesa jasotzen dihardute.

Josu Artutxa Tolosa

Hilabeteak daramatzate mezu bera igortzen, erakundeek jaramon egin diezaieten: «Soldata duinik gabe, ez dago pentsio duinik». Etorkizuneko erretirodunengan pentsatzen dute, baina egungo egoera larriaren jabe direnez, kalera ateratzea besterik ez zaiela geratzen diote. Hori dela eta, eztabaida gehiago ez luzatzeko, eskualdeko erretirodun eta pentsiodunek, manifestazioa antolatu dute larunbaterako, 12:00etan hasita, Tolosako Alde Zaharrean. Atzo, ibilbidearen abiapuntu izango den Plaza Zaharrean egin zuten agerraldia.

Tolosaldean arazo honen eragina jasaten ari diren herritarrek, etenik gabeko protestekin jarraituz, eskualdeko herritar eta biztanle guztiak, «emakumezkoak, gizonezkoak, gazteak, langileak, edota erretirodunak», manifestazioan «festa giroan» parte hartzera gonbidatzen dituzte. Baina ez herrian bakarrik. Izan ere, maiatzaren 11n, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan egingo diren manifestazioetara joateko deia ere zabaldu zuten.

Horrelako egoeretan gertatu ohi den moduan, eskualdeko pentsiodunek, hainbat helburu dituzte, horiek betetzeko asmoz. Honako hauek dira eskuartean dituzten aldarrikapenak: pentsio duinak bermatzeko Pentsioen Sistema Publikoa blindatzea; Europako Gutun Sozialerako konpromisoak betetzeko urrats esanguratsuak ematea; urteroko erosahalmena legez eta betirako bermatzea (gutxienez, KPIaren ordaina); 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata 1.200 eurokoa izatea; prekarietatea areagotu duten lan erreformak eta 2011 eta 2013ko lan eta pentsio erreformen alde atzerakoiak indargabetzea; jasangarritasun faktorea betiko indargabetzea; 40 urtez kotizatutako erretiro aurreratuei zigorrik ez jartzea; gizonen eta emakumeen arteko generoaren arrazoiengatik pentsio arrakalarekin amaitzeko neurri eraginkorrak ezartzea; eta Pentsioen Plan Pribaturako abantaila fiskalik ez izatea.

HERRITARREN ATXIKIMENDUA

Bestalde, orain arte, hainbat norbanako, elkarte eta talderen atxikimendua jaso dutela adierazi zuten. Besteak beste, TOPAk, Giro Arte Dultzainero Taldeak, Tolosaldeko Ernai Gazteak, Ibarrako Gazte Asanbladak, Ibarrako Samalda Talde Feministak, TNT Talde Feministak eta Tolosaldeko Suhiltzaileek eskaini diete babesa pentsiodunei. Zerrenda osoa *ataria.eus* webgunean ikusi daiteke.

Orain artekoekin nahikoa ez, eta jende gehiagoren babesa nahi dutela nabarmendu zuten atzo. Interesa dutenek, baina, igandea baino lehen eman behar dute babesa. Atzo adierazi zutenez, gainera, «deialdi berezia luzatzen diegu alderdi politiko guztiei, larunbaterako, adierazpen publiko baten bidez, aldarrikapenei buruzko iritzia eman dezaten». Alde bateko zein besteko hauteskundeen zurrunbiloan gaudela aprobetxatuz, mezu bat ere izan zuten politikarientzat: «Edonork agintzen duela ere, pentsioak defendatzen jarraituko dugu».

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Zerbitzaria

Tolosaldea. Taberna batean zerbitzari bat behar da. Interesatuek, dei dezatela 647 446 363 zenbakira.

Operadorea

Abaltzisketa. Logikaline enpresak operadore bat bete behar du, lanaldi osorako. Kontratua 6 hilabetekoa da, eta gaztelera, euskara eta ingelesa menperatzea eskatzen da. 943 318 606 zenbakira deitu edo *rrhh@logikaline.com* helbidera idatzi behar da.

GUTUNA

2.562 esker

21. Korrika Gasteizen itsasoratu ondoren, eskerrak emateko ordua da. Berriz ere, agerian geratu da Tolosaldeak euskararekiko duen konpromisoa; ikusi besterik ez baitago Korrikak eragiten duen zirrara eta pasioa haur, gazte, heldu zein helduagoengan. Beste behin, argi geratu da gure eskualdeak euskaraz hazi, hezi eta bizi nahi duela.

Hizkuntza boterea dela diote askok; Maialen Lujanbiok, aldiz, hizkuntza ahulguztiduna dugula. Paradoxa dirudien arren, biek dute arrazoi; izan ere, 21. Korrikak erakutsi du gure hizkuntza eta euskaldunok botere ahalguztidunaren jabe garela.

«Nork agintzen du hemen eta hor?» dio Fermin Muguruzak abesti batean. Tira, erantzuna begi-bistakoa izan da.

Etiketen herrian, elkar ezin ikusien herrian, gure hizkuntzak elkartzeko tresna izan beharko luke; funtsean, berdin duelako txistuak, trikitiak edo trapak; norabide berean egin beharko genuke tipi eta tapa, bigarren mailako eztabaidek edo alderdikeriek lehentasunak lausotzen utzi gabe.

Bestalde, 2.562 kilometro egin ditu 21. Korrikak apirilaren 4an Garestik abiatu zenetik. Ezbairik gabe, asko dira, bai; baina, tamalez, ez dira aski. Horregatik, ezin dugu ahantzi AEK-k antolaturiko ekimen erraldoi hau zergatik eta zertarako egiten den; Korrikaren olatu apartsua lehorreratu ostean, AEK-k zein bertako kideok, errealitate gordinari aurre egin, eta marearen aurka igeri egin behar baitugu isilpean, gau eta egun.

Komeni baina batzuek entzun nahi ez dutena esaten hasi baino lehen, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuet Tolosaldeko elkarte, eragile, zein erakundeen izenean jardun duzuen guztioi; bereziki, Galtzaundi Euskara Taldeari, hasieratik elkarlanerako erakutsitako eskuzabaltasun eta prestutasunagatik; eta, nola ez, Gipuzkoako Korrika koordinatzaile Xabier Artolari, bere pazientzia mugagabeagatik. Bidenabar, ezin ditut ahaztu Edurne Ayuso (20. Korrikako Tolosaldeko arduraduna), Andoaingo AEK euskaltegiko lankideak, Gipuzkoako eta beste herrialdeetako ordezkariak, bisaiarik gabeko gainerako AEKide guztiak eta Korrikaren aldeko ekarpena egin duzuen norbanako oro.

Gogoan izan: ez dugu urre bila abiatu beharrik, benetako altxorra esku artean izanda. Ordainezina da egin duzuena! Bi mila bostehun eta hirurogeita bi esker!

Aritz Peñagarikano
21. Korrikako Tolosaldeko arduraduna

San Joan festak iristeko gogoz

Abian da jada aurtengo festetako kartel lehiaketa. Ostiralean amaituko da lanak aurkezteko epea, eta irabazleak 500 euroko ordainsaria eskuratuko du.

J. Artutxa Tolosa

Geroz eta gutxiago geratzen da aurtengo sanjoanez gozatzeko. Festak ekainaren 21etik 24ra bitarte ospatuko dira. Tolosako Udaleko Kultura, Jaiak eta Gazteria sailak, ordea, abian jarri du jada aurtengo kartel lehiaketa.

Tolosako Udalaren webgunean aurkeztu behar dira lanak, eta epaimahaiak aukeratutakoen artean, herritarrek erabakiko dute irabazlea. Seigarrenez egingo da eta nahi duen orok har dezake parte. Ostirala bitarte aurkez daitezke proposamenak.

Kartelak fitxategi digital batean aurkeztu behar dira, *www.tolosa.eus* webgunean. Bertan azaltzen dira lehiaketaren baldintzak, prozesua eta lanen oinarriak. Aurkeztu ahala, kartel bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio, identifikatzaile modura.

GAUR, BILERA IREKIA

Bestalde, Tolosako Udalak bilera irekia deitu du, elkarte, eragile eta interesa duten norbanakoentzat, sanjoanen antolakuntzan sakontzen jarraitzeko. Gaur izango da batzarra, 19:30ean, kultur etxean.

Artisau garagardo ezberdinak dastatzera jende asko gerturatu zen. I. G. L.

Artisau garagardoari gorazarre, Villabonan

Guztira 60 garagardo baino gehiago dastatzeko aukera izan zen Bearzana frontoian egin zuten Beertoki artisau garagardo azokan

Erredakzioa Amasa-Villabona

16 euskal garagardogile joan ziren Villabonako Beertoki azokara, aukera zabala eskainiz artisau garagardoetan. Igor Fernandez eta Eneko Calvo antolakuntzako kideek azaldu zutenez, «iazkoa izan zen zalantza handia izan genuen azoka. Eguraldi txarra izan zen gainera, eta ikusi nahi genuen azokarekin aurrera jarraituko genuen ala ez. Ondo atera zen, eta espero dugu horrela jarraitzea. Azokak ondo funtzionatzen du daukan tamainan eta horrela jarraituko dugu».

Lau pertsona dira antolakuntzan, baina esan dute egunaren bueltan 50 pertsona inguru aritzen direla laguntzen eta horiek gabe ez direla ezer. «Garagardogileei dagokionez, eskertzen diegu hona etortzeko egiten duten ahalegina. Aurten 27 zeuden izena emanda, eta gero zozketa bidez 17 atera dira», azaldu zuten. Batek, azken orduan huts egin zuen.

Garagardoak dastatzeaz gain, pintxoak jateko aukera ere izan zen, Ama tabernakoen bidez. Horrez gain, aurten berezitasun moduan, herriko artisauek euren postuak jarri zituzten frontoiaren kanpoaldean.

HARRI-JASOTZE TXAPELKETA

Aurtengo beste berezitasun bat herri arteko harri-jasotze txapelketa izan da. Hiru minutuko txandatan, 53 eta 63 kiloko harri borobilak altxatu behar izan zituzten. Alkizako Aitor Otegi eta Juan Jose Olarra, Andoaingo Jon Jauregi eta Jon Lopez de Muniain, Villabonako Mikel Otaño eta Xabi Arantzabal, eta Ibarrako Iñaki Agirre eta Tolosako Iñaki Errazkin aritu ziren lehian. Azken hauek irabazi zuten 5.747 kilo jasoz. Bigarrenak alkizarrak, 5.263 kilo altxatuz; hirugarrenak andoaindarrak 4.474 kilorekin; eta laugarrenak billabonatarrak, 4.080 kilo altxatuz.

Irabazleak «oso gustura» agertu ziren: «Saria irabazten duzunean beti geratzen zara oso gustura. Ematen zuen alkizarrak harrapatzea zaila izango zela, baina nahiko ondo moldatu gara. Gainera, zortea izan dugu azkenak izan garelako parte hartzen. Aurrekoek zer egin duten jakiteak abantaila ematen du».

GOIKOETXEAREN ASKATASUNA ESKATUZ

Tolosaldeko Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako mugimenduak elkarretaratzea egin zuen ostiralean, Andoni Goikoetxea gazteluarraren atxiloketa salatzeko. Bere askatasuna eskatu zuten eta amnistia osoa aldarrikatu zuten. ATARIA

Greba mugagabea atzeratzea erabaki dute

Tolosaldea Bus-eko langileak atzo ziren hastekoak greba mugagabearekin, ELAko langile ordezkariaren kaleratzea salatzeko

Hilaren hasieran egin zuten agerraldia, greba mugagabea iragartzeko. J. ARTUTXA

Erredakzioa

Atzo hastekoak ziren lanuzteekin Tolosaldea Bus-eko langileak, ELAko langile ordezkariaren kaleratzea salatzeko, baina bertan behera uztea erabaki dute enpresarekin egingo duten kontziliazio ekitaldia egin bitarte. Ostegunean, maiatzaren 2an, bilduko dira enpresarekin eta bertan gertatzen denaren zain geratzen direla esan dute. Auzia epaitegietan dagoela ere jakinarazi dute. «Herritarrak ez kaltetzeko» asmoz ari direla ere esan dute eta bide alternatiboak aztertzeko eskatu dute, «kaleratutako langileen ordezkaria berriz onartua izan dadin».

10 HILABETEKO GREBA

2018 urtean zehar, 10 hilabeteko greba burutu zuten enpresa hitzarmena eskuratuz. Hiru urtetarako bake soziala lortu zuten, baina «enpresak bake hori etetea erabaki zuen 2019ko martxoaren 19an langileen ordezkari bat kaleratuz», adierazi dute. Horregatik aurreikusi zuten beste greba mugagabe bat apirilerako, izan ere, «langileriaren osotasunak» arbuiatzen du kaleratzea, «guztien aurkako eraso modura» ikusten baitute.

2018ko grebaren ondotik gertaera asko eman direla ere nabarmendu dute: «ELA sindikatuak salaketa jarri du enpresaren aurka, ez soilik kaleratzearen baliogabetzea eskatuz, baita kalte ordainak exijituz ere. Izan ere, langileen ordezkariaren kaleratzea, azken honek 2018ko greba bideratu izanaren eta bere lan sindikalen ondorio zuzen modura ulertzen dugu».

Era berean, ELA Gipuzkoako Diputazioarekin bildu dela esan dute, gertatutakoaren erantzukizunak argitze aldera: «Onartezina da administraziotik zerbitzu publikoak esleitzea langileekin negoziatzeko prest ez dauden eta, izua zabaltze aldera, hauen ordezkariak kaleratzen dituzten enpresa piratekin». Aldundiaren erantzunaren zain daude.

«Kaleratutako langileen ordezkaria berriz onar dezaten eskatzen dugu eta dei egiten diogu enpresari maiatzaren 2an izango den kontziliaziorako», nabarmendu dute langileek. Adostasunik lortuko ez balute Tolosaldea Bus-eko langileek ez diete uko egiten mobilizazioei eta borrokari.

Tolosaldea Bus Gipuzkoako Aldundiarentzat zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat da eta zerbitzu bereziak ere eskaintzen ditu. EkialdeBus, Garayar, Auif Bus eta Aizpurua enpresek osatzen dute Tolosaldea Bus.

HERRIA	ERROLDA		EH BILDU		EAJ		ELKARREKIN PODEMOS		PSE-EE		PP		ABSTENTZIOA	
	2019	2016	2019	2016	2019	2016	2019	2016	2019	2016	2019	2016	2019	2016
Abaltzisketa	257	246	73	63	76	47	12	15	8	3	1	2	32,30	45,93
Aduna	355	346	129	95	76	45	36	51	5	4	2	2	27,32	41,33
Albiztur	227	252	39	21	32	57	18	30	10	10	0	0	53,30	51,98
Alegia	1267	1.260	388	269	282	206	96	154	70	38	17	40	30,23	41,43
Alkiza	254	259	76	53	63	43	21	36	6	1	1	3	33,46	44,79
Altzo	327	310	125	112	63	46	28	50	5	0	0	3	28,13	29,68
Amasa-Villabona	4346	4.371	1042	774	945	685	454	681	432	270	103	167	27,34	38,41
Amezketa	704	716	228	143	153	101	33	89	18	9	10	13	35,17	49,44
Anoeta	1528	1.499	488	352	284	220	164	235	125	83	46	64	24,41	33,82
Asteasu	1146	1.108	349	249	217	144	126	155	45	25	9	21	33,22	44,86
Baliarrain	89	95	40	24	8	8	0	8	1	1	0	0	43,82	53,68
Belauntza	186	200	46	34	45	37	12	22	6	1	1	1	39,78	50,00
Berastegi	854	839	273	181	252	169	43	90	33	11	6	13	27,28	43,62
Berrobi	446	441	122	100	95	50	47	63	16	15	6	14	33,18	42,86
Bidania-Goiatz	391	386	137	98	87	58	26	37	10	4	3	5	29,92	45,60
Elduain	183	176	62	40	50	32	9	16	2	0	0	2	31,69	48,86
Gaztelu	117	118	35	36	32	22	16	23	1	0	1	2	24,79	27,97
Hernialde	234	155	57	38	66	42	14	35	6	1	3	2	33,33	51,76
Ibarra	3172	3.228	758	546	649	466	344	562	319	215	75	102	29,16	39,06
Ikaztegieta	364	367	115	96	69	53	34	62	23	14	4	6	28,30	35,69
Irura	1248	1.223	307	201	299	203	149	204	86	42	18	47	26,44	39,57
Larraul	184	182	56	44	29	13	22	31	7	3	1	2	34,78	45,05
Leaburu-Txarama	270	266	95	93	69	49	13	20	0	1	1	4	31,11	36,09
Lizartza	459	447	230	189	58	47	12	40	8	0	0	6	31,81	36,02
Orendain	153	145	70	52	40	31	13	16	0	0	0	0	18,95	31,03
Orexa	88	88	72	64	2	1	1	0	0	0	0	0	14,77	23,86
Tolosa	15036	14.801	3292	2.271	4074	2.934	1616	2.568	1350	798	292	553	26,24	36,04
Zizurkil	2258	2.237	567	441	406	296	214	344	281	155	50	89	30,12	38,62
TOLOSALDEAN	36.143	35.761	9.271	6.679	8.521	6.105	3.573	5.637	2.873	1.704	649	1.163	28,08	38,39

EH Bildu da lehen indarra eskualdean eta gertu du EAJ

2016ko hauteskundeekin alderatuta bi alderdi abertzaleek gora egin dute, eta alderantziz, 2.000 bat boto galdu ditu Elkarrekin Podemosek; PSE-EEk ere hobetu ditu emaitzak

J. Miranda – I. Terradillos

Espainiako Kongresurako 23 diputatu eta Senaturako 16 ordezkari aukeratzeko hauteskundeak egin ziren Hego Euskal Herrian aurreko igandean. Herritarrek Gipuzkoan EAJko Joseba Agirretxea eta Iñigo Barandiaran; EH Bilduko Mertxe Aizpurua eta Jon Iñarritu; PSE-EEko Odon Elorza; eta Elkarrekin Podemoseko Pilar Garrido aukeratu dituzte diputatu. Senatuan, berriz, hiru ordezkari izango ditu alderdi jeltzaleak: Maribel Vaquero, Mertxe Garmendia (azken udal agintaldian Amasa-Villabonako zinegotzi izan dena) eta Luke Uribe-Etxeberria (Asteasun EAJko zinegotzi dena). Gipuzkoarrek EH Bilduko Gorka Elejabarrieta ere aukeratu dute senatari gisa.

Ikusgarria izan da parte hartzea Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan. Hego Euskal Herrian %75aren bueltan kokatu da eta puntu bat beherago Gipuzkoan. Hala ere, 2016ko hitzordutik, Gipuzkoan izan du igoerarik handiena, 10,8 puntukoa. Maila berean egin du gora parte hartzeak Tolosaldean eta duela hiru urteko hauteskundeetan baino 10,3 puntu beherago kokatu da abstentzioa, %28,08an. Herriz herri, Albiztur-ren egon da parte hartze gutxien eta %53,3an kokatu da abstentzioa.

ALDERDIZ ALDERDI

Tolosaldeko 28 herrietatik 25etan EH Bildu izan da alderdi bozkatuena eta EAJ gailendu da Tolosan, Hernialden eta Abaltzisketan. Eskualdeko emaitza orokorrei begiratuta, ordea, bi alderdien arteko aldea 750 bototakoa da. Bi alderdi abertzaleetako baten alde egin dute Tolosaldeko hamar biztanletik zazpik. Atzerago kokatu dira estatu mailako alderdiak: Elkarrekin Podemos (%13,9), PSE-EE (%11,1) eta PP (%2,5).

Eskualdeko laugarren indar politikoa izan arren, alderdi sozialistak nabarmen hobetu ditu 2016ko emaitzak, %68,6an gora eginez. Duela hiru urteko hauteskundeetan baino 1.169 boto gehiago eskuratu ditu, eta Zizurkilen adibidez, hirugarren alderdia da Elkarrekin Podemosen aurretik.

Hain zuzen, Ahal Duguk, Ezker Batuak eta Equok aurkeztutako hautagaitzak boto galera handia izan du Tolosaldean aurreko Espainiako Gorteetarako hauteskundeetatik hona. 2.064 boto gutxiago bildu ditu eta horrek %36,6ko beherakada suposatu du. Duela hiru urte lehen indarra izan zen Ibarran eta Iruran, esate baterako, eta orain, alde handiarekin, hirugarren izatera pasa da.

Nabarmenagoa izan da PPren jaitsiera. Ia erdira jaitsi ditu es-

kualdean lortutako botoak (%44,2 gutxiago) eta 649 boto eskuratuta ez du gainditzen ordezkaritzaren %3aren langa. Oraindik ere beherago kokatu dira Ciudadanos eta Vox alderdiak, baina, hala ere, azpimarratzekoa da igandeko hauteskundeetan ultraeskuindarrek Tolosaldean ia 200 boto lortzea.

MAIATZERA BEGIRA

EAJ lehen indar politikoa da Tolosan, eta bigarren alderdiari, EH Bilduri, 780 botoko aldea atera dio. Jeltzaleak bozkatuenak izan dira, baita ere, Abaltzisketan eta Hernialden, baina alde txikiagoarekin, hiru eta hamaika botoko aldearekin, hurrenez hurren. EH Bildu alderdirik bozkatuena izan den herri guztietan, EAJ izan da bigarren indarra, zenbait herritan, alde txikiarekin. Iruran, esate baterako, koalizioa abertzalea zortzi botogatik gailendu zaio alderdi jeltzaleari. Herri handiagoetan ere estua izan da aldea. Berastegin, EH Bildu 3,4 puntutan gailendu zaio EAJri, eta Ibarran, 4,9 puntutan.

Amasa-Villabonan ere, EH Bildu izan da alderdirik bozkatuena eta EAJk koalizioak baino 97 boto gutxiago lortu ditu, 3,1 puntu gutxiago. EH Bildu alde handiagoarekin nagusitu zaio alderdi jeltzaleari, ordea, Anoetan (17,8 gehiago EAJ baino), Alegian (12 puntu gehiago) edota Zizurkilen (10,3 gehiago). Aurki, udal eta foru hauteskundeak egingo dira eta ikusi beharko da igandeko emaitzek maiatzaren 26ko hauteskundeetan eraginik izango duten ala ez. Inoiz ez dira bi hitzordu elektoral hain gertu izan orain arte.

«Emaitzak hobetu ditugu, guretzat historikoki errazak ez diren hauteskundeetan, eta oso pozik gaude. Hilabete baten epean bi hauteskunde egonda, emaitza positiboak izateak indarra ematen du. Maiatzerako oso egoera onean jartzen gaitu. Garbi izan genuen hasieratik ezin genuela bakarrik egin bidea, ezkerreko subiranistekin egin behar genuela, eta horrek lagundu digu kokatzen. Madrilen 19 diputaturekin egotea oso emaitza positiboa da, eta erabakigarri izateko aukera gehiago ditugu»

ENEKO MAIOZ EH BILDU

«Igande borobila atera zaigu, ezin gara kexatu. Emaitzak, bai Tolosakoak, bai eskualdekoak, baita EAEkoak ere, oso onak dira. Egindako lan onaren fruitu dira emaitzak. Herriak lan ona egiten denean, hori baloratu eta eskertu egiten du. Historikoki erakutsi dugu alderdi serio bat garela, konprometitua gure herriarekin. Udal hauteskundeak oso desberdinak dira, horietan botoa pertsonalagoa da, ez hain alderdikoa»

BEGOÑA TOLOSA EAJ

«Emaitzak ez dira ez onak ezta txarrak ere. Botoen galera egon da, baina horrek ez du gure proiektua mugatzen. Guk hazten jarraitu nahi dugu, gure proiektuari sendotasuna ematen. Tolosaldear gehienek nahi dute gure alderdia izatea Euskadiko bipartidismoaren alternatiba. Oraingoan eskuin muturreko hiru alderdiei aurre egiteko jendeak mobilizazio ezberdin bat izan du, alderdi sozialistaren bozkek erakutsi duten moduan»

IÑIGO CABIECES ELKARREKIN PODEMOS

«Emaitza oso onak izan dira. Urteak ziren Tolosan 1.300 botora ez ginela iristen, eta oro har, gure igoera nabaria izan da. Ciudadanosekin elkartzearen ideia ez zait gustatzen, eta uste dut ezkerreko gobernu bat osatuko dugula. Udal hauteskundeak ez dira gauza bera, baina, hala ere, baikor eta gogotsu gaude. Dinamika positiboarekin lanean jarraitzeko prest gaude»

CHRISTIAN FERNANDEZ PSE-EE

«Emaitzen balantze txarra da, besterik egiterik ez dago. Igandeko hauteskundeetako berberak gara, eta politikan jardungo dugu politika egitea interesatzen zaigulako. Kanpainan tentsioa handia egon da. Orain herriko politikari xumeei tokatzen zaigu herriaren aurrean agertzea, herriak zer behar duen eta herritarrei zer komeni zaien ikustea, eta horretan jarraituko dugu»

PEIO ATXUKARRO PP

Igandean jende asko gerturatu zen Amasa-Villabonako Olaederra kiroldegian jarritako hautetsontzietara. IRATI URDALLETA

Albizturko udaletxea artxiboko irudi batean. IMANOL GARCIA LANDA

Albizturko alkateak dimisioa aurkeztu du

Maixabel Matxinandiarena alkateak eta udal batzordeko kide den Karlos Ugartemendiak aurkeztu zuten dimisioa aurreko asteko ostegunean

Erredakzioa Albiztur

2015eko udal hauteskundeetarako ez zen zerrendarik aurkeztu Albizturren, eta irailerako osatu zuten Udal Batzorde Kudeatzailea. Batzorde Kudeatzaileko lehendakari gisa, alkate baten eskumenak eta ahalmenak bere gain hartu zituen, hasiera hartan, Karlos Ugartemendiak.

2017ko maiatzean aldaketak eman ziren Udal Batzorde Kudeatzailean, tartean, lehendakari aldaketa. Orduan hartu zuen kargua Maixabel Matxinandiarenak, eta Karlos Ugartemendiak kide izaten jarraitu zuen: «Batzordean erabaki dugu ardurak aldatzen joatea, eta orain pentsatu dugu lehendakaria edo alkatearen kargua aldatzea», azaldu zuen Matxinandiarenak kargua hartzean.

Lorpen «historikoa»

Mailaz igo ondoren, bigarren mailan jokatuko du datorren denboraldian Tolosa CF futbol taldeak

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosa CFko jokalariak, goletako bat ospatzen. I. URDALLETA

Tolosa CF Euskal Ligako taldeak bigarren mailara igotzea lortu zuen igandean, Berazubin Zarautzen aurka jokatutako partida irabazi ondoren. Izaro Goenaga kapitainak emozioz gogoratzen du unea: «Izugarrizkoa izan zen. Berazubin jokatzeko aukera izatea, horrelako afizioa ikustea, harmailak beteta... Bagenekien egun historikoa izan zitekeela, amets bat egi bihurtzeko aukera genuela, eta lortu genuen. Zelaian bizitakoa izugarrizkoa izan zen».

Lorpen «historikoak» klubean eragin handia duela gaineratu du Goenagak: «Igoera hau lortzea oso berezia da Tolosa CF-n futbolean aritzen diren neska guztiontzat. Futbolari gazteentzat gu erreferentzia bat gara, igoera historiko hori lortu dugunak, eta gu bezala bizitu zuten harmailetan».

Partida 5-0 irabazi zuen Tolosa CFk, baina lehen zatia golik gabe bukatu zen. «Zarautzek ez zuen ezer jokoan, baina bagenekien borrokatzera etorriko zirela. Hasieran bagenekien kostatuko zitzaigula partidan sartzea: Berazubin jokatzen genuen, jende asko zegoen harmailetan, giro berezia...», esan du Imanol Cabero entrenatzaileak. «Lehen zatiaren bukaeran gehiago gerturatzen hasi ginen beraien atera, eta bigarren zatian lehenengo gola sartu genuenean, taldeak presioa kendu zuen gainetik eta hortik aurrera lasaiago ibili eta beste gol guztiak etorri ziren».

Horrelako partidetan burua izaten dela gehien eragiten duena gaineratu du Caberok: «Ez bagenuen ezer jokoan, lasaiago egongo ginen. Horregatik, lehenengo gola sartu ondoren, lasaitu ginen eta beste guztiak etorri ziren».

Goenagak sartu zuen lehen gol hori. «Hasieran urduritasuna izatea normala zen, baina bagenekien denboraldia zehar erakutsi duguna eginez gero, azkenean lortuko genuela», esan du kapitainak. «Beraiek hasieratik dena ematera atera ziren eta guk aukerak izan arren ez ziren golak sartzen. Bigarren zatian, lehen gola sartzerakoan ikusi genuen gertuago genuela gure ametsa, eta lortu genuen. Gola sartu nuenean, pozik jarri nintzen batez ere taldearengatik. Asko hunkitu nintzen taldekideak etorri zirenean zoriontzera eta harmailak txaloka jarri zirenean».

«DENON LANAREN FRUITUA»

Denboraldi hasieran ez dela jakiten nola joango den txapelketa azaldu du Caberok: «Aste asko dira, egoera asko pasa behar dira, eta ez dakizu nola egongo zaren. Taldea, egia esan, hasieratik oso ondo egon da. Lehen itzulian izan genituen hiruzpalau partida berdindu eta tartean bat galdu genuela, eta zalantzaren bat sortu zen. Baina, oso ondo altxatu zen taldea, eta hortik aurrera, nahiz eta momentu zailak egon diren, oso estua egon baita igoera lortzeko sailkapena, neskak oso ondo egon dira, lasai egon gara, emaitzak etorri dira eta azken aurreko jardunaldian igoera lortzea ez genuen espero. Pentsatzen genuen azken jardunaldira arte egon beharko genuela lehian. Beraz, Berazubin igoera lortzea oso berezia izan da».

Denboraldian zehar ez dute asko hitz egin igoeraz. «Lehen itzulian aurreko denboraldia hobetzea zen helburua, eta gero, bigarren itzulian, lehen itzulikoa hobetzea», esan du Caberok. «Bagenekien hori egiten bagenuen sailkapenean aurreneko postuetan egongo ginela. Igoera lortu dugu eta oraindik pixka bat sinesten ari gara lortutakoa».

Emakumezkoen futbolak datorren denboraldira begira aldaketak izango dituela aurreikusten da. Beste maila bat sortzekotan dira, egungo lehen maila eta bigarren maila artean kokatuko luketena. Oraindik ez dago informazio zehatzik nola izango den prozesu hori, beraz, Tolosakoek ez dakite datorren denboraldian zein izango dituzten aurkari. Urrutiena Zaragozara eta Errioxara joatea tokatuko litzaieke, egungo bigarren mailan egokituko litzaiekeen multzoari begiratuz gero.

«Egun 150 neska daude Tolosa CFko maila guztietan. Harrobia indartsu dator, eta talde nagusia bigarren mailan izatea denon lanaren fruitua da», esan du Imanol Caberok.

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

26. jardunaldia

Cuellar Cojalba–**Lauburu**	3–4
Laskorain–Juv. del Circulo	2–2

Sailkapena

2. **Lauburu Ibarra**	54p
10. **Laskorain**	29p

Hurrengo jardunaldia

Lauburu (2)–Sala Quinto (14)

Laskorain (10)–Otxartabe (6)

Futbola

EUSKAL LIGA

29. jardunaldia

Tolosa CF–Zarautz	5–0

Sailkapena

1. **Tolosa CF**	72p
2. Arratia	68p

Hurrengo jardunaldia

Aurrera de Vitoria (12)–**Tolosa CF (1)**

Eskubaloia

LEHEN MAILA NAZIONALA

29. jardunaldia

Somos Eibar–**Tolosa CF**	22–32

Sailkapena

1. **Tolosa CF**	50p
2. Anaitasuna	48p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (1)–Alcorta Forging (11)

ATHLETIC IZAN DA GARAILEA

Tolosa CF-k antolatuta, infantil mailako futbol 8 txapelketa jokatu zen larunbatean Berazubin, IV. Nescup Txapelketa. Hamabi taldek parte hartu zuten, eta horrela geratu zen sailkapena: Athletic, Mulier, Reala, Osasuna, Tolosa B, Tolosa A, Pauldarrak, Aurrera de Vitoria, Erandioko Betiko Neskak, Intxaurdi, Leintz Arizmendi eta Lagun Onak. Finala, Athletic eta Mulierren artekoa, oso parekatua izan zen eta penaltietan erabaki zen txapelketa. I.G.L.

Jakak egin du aurrera eskualdeko norgehiagokan

Artolari 22-20 irabazi dio lizartzarrak; Jokin Altunak Irribarriaren aurka jokatuko du ostiralean

Asier Imaz

Partida ikusgarria jokatu zuten Erik Jaka lizartzarrak eta Iñaki Artola alegiarrak buruz buruko-an. Jakak 22-20 irabazi zuen eta Joseba Ezkurdiaren aurka jokatuko du maiatzaren 4an Iruñeko Labrit pilotalekuan.

Partida gorri hasi zen, 7-0 aurreratu baitzen Jaka. Ikusgarri jokatu zuen tanto bolada horretan, ezker bolearekin Artola erabat gaindituz. 15-3koarekin partidak kolore bakarra zuela zirudien, baina orduan iritsi zen alegiarraren berpiztea. Hala eta guztiz ere, Jaka izan zen bigarren atsedenaldira aurretik iritsi zena, oraindik ere abantaila handiarekin: 18-7. Hortik aurrera kolore bakarra izaten segitu zuen jokoak, baina, kasu honetan urdina. Artola 20-9tik hogeinakora joan zen zuzenean. Bi tantoren faltan, bi pareta batek puskatu zuen Artolaren erreakzioa. Jakak ez zuen oparia alferrik galdu eta atzean tantoa amaitzea lortu zuen: 21-20. Azken tantoa ez zen nahi bezala hasi lizartzarrarentzat. Sakeari erresto bikaina eman zion Artolak, eskuin sotamanoz. Baina ausart jokatu zuen lizartzarrak eta erasoan tantoa amaitzea lortu zuen.

Artola eta Jaka, partidaren amaieran. A. IMAZ

ALTUNA LEHIAN SARTZEN DA

Maiatzaren 3an, ostiralean, Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatuko dute Jokin Altuna amezketarrak eta Iker Irribarria aramarrak buruz buruko txapelketaren final-laurdenetako partida. Irribarriak 22-20 irabazi zion Victorri Eibarko Astelena pilotalekuan. Final-zortzirenetako partida zen eta lehia oso gogorra izan zen. Victor 19-18 aurretik joan zen, baina azken tantoetan kale egin zuen eta aramarrak garaipena erdietsi zuen asko sufrituta. Final-laurdenetan Jokin Altuna egungo txapelduna izango du zain.

Bigarren mailako buruz buruko txapelketan eskualdeko bi ordezkarik hartuko dute parte eta asteburu honetan hasiko dira lehian. Bat iazko finalista da, Jon Erasun. Arantza ateratzen saiatuko da zizurkildarra, aurtengo txapelketan. Darioren aurka jokatuko du maiatzaren 5ean. Bigarren ordezkaria Beñat Urretabizkaia da. Ikaztegietarraren aurkaria Elordi izango da, maiatzaren 3an Urduñan jokatuko duten partidan.

Ait Chou eta Gurrutxaga, lehenbizikoak Amasan

Loatzoko XXVII. Igoera-Jaitsiera lasterketan 53 korrikalarik parte hartu zuten

Irati Urdalleta
Amasa–Villabona

Hassan Ait Chaou billabonatarra eta Maialen Gurrutxaga andoaindarra sailkatu ziren lehenengo postuan, Amasan hasi eta bukatzen den Loatzoko XXVII. Igoera-Jaitsieran. Aitor Regillaga tolosarra eta Oihana Zubillaga anoetarra izan ziren bigarrenak, eta hirugarren postua Xabier Vegasentzat eta Kontxi Blanco anoetarrarentzat izan zen.

Guztira, 53 parte hartzaile izan ziren igandean jokatutako proban, zortzi emakume eta 45 gizon, hain zuzen ere. Amasako gazteek eta Uxo Toki elkarteak antolatu zuten lasterketa, eta amaieran, guztiek hamaiketakoa egin zuten Uxo Toki elkartean bertan.

Lehen sailkatuen denborei dagokionez, Hassan Ait Chaouk 44 minutu eta segundo bat behar izan zituen eta Maialen Gurrutxagak 56 minutu eta 28 segundo 9,73 kilometroko ibilbidea egiteko. Bigarren postuan sailkatutako Aitor Regillagak 45 minutu eta 21 segundoko denbora egin zuen eta Oihana Zubillagak 58 minutu eta 3 segundokoa. Hirugarren sailkatu zen Aguraingo Xabier Vegasek, berriz, 45 minutu eta 48 segundo behar izan zituen, eta Kontxi Blancok, bere aldetik, ordubete, 2 minutu eta 37 segundo.

Seigarren postuan helmugaratuz, Eñaut Galarraga izan zen lehen amasarra 48 minutu eta 7 segundoko denborarekin.

Emakumezkoen eta gizonezkoen podiuma. I. URDALLETA

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria n jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!
TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Patxi Iraola Garmendia

- Goian bego -

Mendi gaineko dizdira
azaldu zaigu argira
izar handi hori jeitsi dezagun
berak utzitako kabira.

Elkarteko kuadrilla

ZALDIBIAN, 2019ko apirilaren 30ean

ASTEARTEA, 2019KO APIRILAK 30
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46

www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
Tolosaldeko gizarte eragileak

ASTEARTEA 30

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. *Migel Marmolen hamaika eta bat jaiotzak* liburua irakurketa taldean, 18:30ean, Aranburu jauregian.
Ikaztegieta. Odol ematea, 18:30ean, udaletxean.
Tolosa. Sanjoanak antolatzeko jai bilera 19:30ean, kultur etxean.
Tolosa. *Fausto* zuzeneko proiekzioa, 19:45ean, Leidor antzokian.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro eguzkitsu eta egonkorra. Goizean goiz behe-laino puntu bat agertuko da, baina segituan jaso eta zeru urdinaz gozatu ahalko da ia egun osoz, nahiz eta, arratsalde erditik aurrera goi-hodei batzuk agertu. Haizeak ipar-ekialdetik jotzen jarraituko du eta tenperatura maximoa 19-21 gradu bitartean errendituko da.

Bihar. Giro atsegina baina aldaketa batzuekin. Goizean ipar-ekialdeko haizearekin giro eguzkitsua izango da, nahiz eta, goi-hodei batzuk ikusi. Eguerditik aurrera haizea ipar-mendebaldetik finkatuko da eta horrekin pixkanaka hodeiak nagusitzen joango dira. Termometroak 20-22 graduan kokatuko dira eguneko erdiko orduetan.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eguneko albisteak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Joseba Landa Bartzelonatik, Joanes Karrera arkeologoa eta Aintzane Artolaren errezeta.
12:00-13:00. Entzuteko jaioak.
16:00-18:00. Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko onena.
20:00-20:30. Kokondo.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
16:30. Elkarrizkettap (Maria Rivero).
17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
22:15. Ireki Kaxa (Iker Ibarluzea).
23:00. Zer jan.
23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
Gauekoa. Lourdes Azpiroz. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.

TOLOSALDEKO ATARIAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GIPUZKOA BERTSOTAN-EN ATARIKOA

Imanol Irazustabarrena, Maialen Akizu, Txomin Azpiroz, Eli Pagola, Oier Iurramendi eta Beñat Mujika bertsolariek saioa eskaini zuten Ibarrako Galtzaundi tabernan, hileko azken ostegunetan egin ohi duten hitzorduaren barruan. Gipuzkoa Bertsotan sailkapen faserako girotze saioa izan zen eta Imanol Artola *Felix* izan zen gai-jartzailea. Gipuzkoako txapelketak izango duen antzeko formatua baliatu zuten. GALTZAUNDI

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

www.ataria.eus · 107.6 fm

ALEGIA – Beistin Auzoa
Azken etxebizitzak!

4 logela + 2 bainugela 180m2 erabilgarritik gora
275.000€ tik hasita

VILLABONA – Kale Berria 48

3 logela + 2 bainugela
205.000€ tik hasita
Etxebizitza herri erdigunean!

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.
KALE BERRIA 46, BEHEA
20150 VILLABONA
607 445 484
943 69 02 97
www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com